

IRAKURKETA MINTEGIA

2022-2023. ikasturteko programaren ildo nagusiak

- 0-12 urte bitarteko haurrentzako literatur liburuak erabiliko dira.
- 2022an kaleratu diren liburuak irakurri eta aztertuko dira.

HELBURUAK

- Formazioa eskaini haur literaturan eta irakurketarako dinamizazioan.
- Liburuen balorazio irizpideak eta aurkezpen fitxak landu.
- 2022an 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat euskaraz kaleratu diren literatura liburu guztiak irakurri eta bakoitzaren aurkezpen bat idaztea web orrirako.
- *Liburuen Altxorra / Liburu ibiltariak* eta beste zenbait proiektutarako liburu zerrendak osatzea.
- Urtero euskaraz haurrentzat argitaratutakoaren *kalitatea neurtzea*, estatistikak osatuz.

GIDARIAK

- Imanol Mercero, literatura kritikaria.
- Larraitx Idarreta, bibliotekaria.

DATAK, ORDUAK, LEKUA

- Donostiako Haur Liburutegian egingo dira saioak: Fermin Calbeton, 25 (Alde zaharra).
- Saioak hilean larunbat batez: 10:00etatik 13:00etara izango dira. Egutegi zehatza:

2022	2023	
Irailaren 17a	Urtarrilaren 14a	Apirilaren 22a
Urriaren 15a	Otsailaren 25a	Maiatzaren 20a
Azaroaren 12a	Martxoaren 25a	Ekainaren 17a
Abenduaren 17a		

PROGRAMA- FORMAZIOA

Irakurketa mintegiaren ohiko saioez gain, aurten ere formazio saio berri bat antolatu du Galtzagorri elkarteak. Oraingoan, **irudiei, ilustrazioei erreparatuko diegu** eta albumetan duten garrantzia aztertuko dugu **Teresa Durán i Armengol-en** eskutik. 8 orduko ikastaro trinkoa eskainiko du.

Duranek ilustrazioen begietatik ekarriko dizkigu albumak. Irudia jaun eta jabe den aro honetan, paradoxikoa bada ere, alfabetizazio bisualaren beharrea gaude eta antolatu dugun ikastaroa behar horri erantzun nahi dio puntako aditu baten ahotsetik. Duranek bere saioan egingo dituen galderetako batzuk: Zerk bereizten ditu album ilustratuak eta liburu ilustratuak? Ez ote da irudiaren irakurketa, alfabetikoa bezain edo are konplexuagoa? Zein dira ilustrazioaren baliabide komunikatiboak? Albumetan zer dio testuak? Zer, irudiak? Irudia hitzetatik ezberdintzen da ala osagarria da? Halaber, Duranek irudien sekuentziazio narratiboa aztertuko du, baita orrialdeen banaketa ere; album moten analisia eta balorazioa egingo ditu baita ere. Horrekin guztiarekin, albumetako irudiak irakurtzeko estrategiak eskainiko dizkie parte-hartzaileei, albumak irakurtzeko beste baliabide eta finean beste begi batzuk.

Saio monografikoa **2022ko azaroaren 26an izango da, goizez eta arratsaldez, San Telmo museoan.**

Formazio saio hau mintegikideei bereziki eskainia egongo den arren, publiko orori irekia izango da. Mintegiko kideentzat doan izango da. Bazkideek prezio berezia izango dute. Aurrerago zehaztuko zaizkizue formazio saio honen nondik-norakoak.



